Klima-aldaketa




PENTSATU

Orain dela mende bat ingurura arte, Lur planetako klima oso poliki aldatzen zen, baina azken hamarkadetan tenperatura azkar igo da, gizakiek –erregai fosilak, hala nola petrolioa, ikatza edo gasa errez– aireratzen duten kutsadura dela bide. Klima-aldaketa rozesua klima-aldaketa deitzen da eta batez ere gune oso beroei eragiten die, adibidez, Afrika iparraldeari, baita oso hotzak diren tokiei ere, adibidez, Ipar poloari eta Hego poloari.

BAZENEKIEN....

Zer da klima-aldaketa?

Da klima-aldaketa lurreko klimaren eredu meteorologikoen aldakuntza **nabarmena eta iraunkorra** da. Klima-aldaketa kliman aldakuntzak egotea normala eta naturala da eta planetaren historia osoan gertatu da, itsaslasterren, prozesu biotikoen, sumendi-jardueraren edo jasotako eguzki-erradiazioaren aldakuntzen ondorioz. El problema es que la actividad humana ha acelerado ese cambio climático y lo que antes ocurría a lo largo de miles de años, ahora ocurre en apenas dos décadas. Arazoa zera da: gizakiaren jarduerak klima-aldaketa hori bizkortu egin du, eta lehen milaka urtetan gertatzen zena orain bi hamarkadatan soilik gertatzen da.



Zer da berotze globala?

Kutsadura atmosferikoak eragiten duen berotegi-efektuaren ondorioz, Lurraren gainazalaren tenperatura igotzea da. Gaur egun, Lur planeta 1,1 gradu beroago dago 1850 eta 1900 bitartean baino.

Zer da berotegi-efektua?

Atmosferako gasen geruza batek Lurraren atmosferan atxikitzen duen Eguzkiaren beroa da. Gas horiek gabe, bizitza ezagutzen dugun bezala ez litzateke posible, planeta hotzegia litzatekeelako. Arazoa zera da: gas horien kantitatea (hala nola karbono dioxidoaren eta metanoaren kantitatea) gehiegizkoa da orain, ibilgailuen trafikoa, energia sortzeko ikatza eta gasa erretzea eta abeltzaintzan hazten diren animalien kopurua handitzea direla medio. Aldi berean, zuhaitzak mozteak murriztu egiten du naturak gas horiek absorbatzeko duen ahalmena.



KLIMA-ALDAKETAREN ARRAZOIAK

Klima-aldaketa bizkortu egin da gizakiek berotegi-efektuko gasak isurtzen dituztelako; izan ere, isuri horiek areagotu baino ez dute egin XIX. mendetik hona. 2022an, 40,5 gigatona karbono dioxido bota ziren atmosferara, Pariseko Eiffel dorrearen pisua bider 450, hau da, orain dela 50 urte isurtzen zena baino bi aldiz gehiago. Albiste onik ere bada: 2019an, kutsadura mailak egonkortu egin ziren eta, teorian, datozen urteetan jaitsi egingo dira pixkanaka-pixkanaka.

Berotegi-efektuko gas mota desberdinak daude, hala ere, karbono dioxidoa (CO_2) da ohikoena; izan ere, gas kutsatzaile horien % 80 inguru da karbono dioxidoa. Jarraian, metanoa (CH_4) eta oxido nitrosoa (N_2O) daude. Gizakiek sortutako karbono dioxidoa hiriak argiz hornitzeko, fabrikek behar duten beroa lortzeko eta ibilgailuetako motorrak mugitzeko energia (elektrizitatea) izateko erregaiak erretzean sortzen da nagusiki.

Gizakiek natura gaizki erabiliz ere sortzen dituzte berotegi-efektuko gasak. Izan ere, animalia hausnarkarien abeltzaintzak eta horretan sortzen diren gorotzek planetako isuri kutsatzaileen % 6 inguru eragiten dute; bestalde, deforestazioak murriztu egiten du zuhaitzen eta landareen ahalmena –atmosferako karbono dioxidoa fotosintesi prozesuan xurgatzeko– eta nekazaritzan ongarritzekoen erabilerak oxido nitrosoaren kantitate handiak sortzen ditu (gas hori CO_2 baino 300 aldiz kutsatzaileagoa da).

Edonola ere, atmosferara botatzen diren berotegi-efektuko gasetako batzuk ez dira bertan geratzen. Une hauetan, gizakiek aireratu dituzten gas kutsatzaileen erdia edo dago atmosferan; gainerakoa urak, landareek eta zuhaitzek xurgatu dute; horregatik da hain garrantzitsua natura zaintzea.

KLIMA-ALDAKETAREN ONDORIOAK

Klima-aldaketak gure bizitzan duen inpaktua bistakoa da.
Ondorio ekonomiko eta sozial sakonak ere baditu; neurriak hartzen hasi ezean, gero eta larriago bihurtuko dira. Espainia, bere egoera geografikoagatik eta ezaugarriengatik, oso kaltebera da klima-aldaketari dagokionez.

Hona hemen ondorioetako batzuk:

1) Tenperatura igotzea
Tenperaturaren aldaketak klima-aldaketaren ondorio argiena dira. Gaur egun, industria aurreko garaian (1850 eta 1900 bitartean), hau da, gizakiek erregaiak kantitate handietan erretzen hasi aurretik, baino 1,1 gradu beroago dago Lurraren gainazala, batez beste. Tenperaturaren igoera txikia dela ematen badu ere, batez besteko datua da planeta osoarentzat, hau da, gune batzuetan termometroak askoz ere azkarrago igotzen dira. Adibidez, Mediterraneoko itsasoa hiru aldiz azkarrago berotzen ari da Lurreko gainerako urak baino. Artikoan ere gertatzen da, eta horrek lpar poloan izotz kantitate handiak urtzea eragiten du, gainera.



itsasoaren mailaren igoera

XX. mendean, tenperatura 0,6 °C igo da. Horren ondorioz, glaziarrak urtu egin dira, eta ozeanoak, gero eta beroago daudenez, hedatu; ondorioz, itsasoaren maila 10 eta 12 zentimetro bitartean igo da. XXI. mendean, aurreikusten da munduko tenperatura 1 eta 5 °C bitartean igoko dela, eta itsasoaren maila, aldiz, 9 eta 88 cm bitartean. Hortaz, kostaldeetan dauden hirietan uholdeak egoteko arriskua sortuko da. Halaber, alde menditsuek uholdeak izateko arriskua izango dute, laku glaziarrak urtzearen ondorioz.

3) Edateko urik eza

Ur-masa kontinentalak, hala nola ibaiak, lakuak eta urtegiak, lehorteen ondorioz sika litezke; horrela, giza kontsumorako eta elikagaiak ekoizteko eskuragarri dagoen ur-kantitate murriztuko litzateke.

4) Deforestazioa


Lurreko basoak eta oihanak suntsitzen ditu; beraz, berotegi-efektuko gas gehiago isurtzen dira atmosferara, lurzoruen kalitateari kalte itzela egiten zaio eta klima-aldaketa azkartzen eta larriagotzen da. Arrazoi asko daude zuhaitzak neurrigabe mozteko, baina gehienek nekazaritza- eta abeltzaintza-jarduerarekin dute zerikusia, baita egurrari lotutako jarduketa komertzialekin ere; horien bidez, basoak mozten dira, nekazariek beren laboreetarako edota abereen larreetarako leku gehiago edo paper-orez eta egurrez egindako produktu gehiago lortzeko.

Baso-mozketak, legalak zein isilekoak (ilegalak) urruneko basoetara iristeko errepideak eraiki behar direla, baso-suteak gerta daitezkeela, espezieak gal daitezkeela eta abar esan nahi du.



Gizakion ekintzak direla edo tenperatura altuak direla medio sortutako baso-suteek ere eragina dute deforestazioan. Espainia baso-suteen eragin nabarmenena jaso duten Europar Batasuneko herrialdeetako bat da, eta arazoa larriagotzen ari da klima-aldaketaren ondorioz. Espainian, kausa ezaguna duten suteen % 96 baino gehiagotan, gizakiak eragin du sua.

5) Animalia- eta landare-espezieen desagerpena



Txosten ugarik ziurtatzen dute 1,5 °C-ko batez besteko igoerak espezieen % 20-30 desagertzeko arriskuan jar ditzakeela. Planeta 3 °C baino gehiago berotzen bada, animalia- eta landare-espezie gehienek zailtasunak izango dituzte haien ingurune naturaletan eta ekosistemetan gertatutako aldaketetara egokitzeko. Gaur egun, munduko espezie mehatxatu asko klima-aldaketak kalte larria egingo dien eremuetan bizi dira, eta aldaketa azkarregi gertatzen ari da haiek moldatu ahal izateko; mende honetan gertatzen ari denari seigarren suntsipena deitzen zaio.

6) Fenomeno meteorologiko kaltegarriak

Eurien intentsitatea eta maiztasuna areagotu egingo dira eta ekaitz, hurakan, tornado, uholde, lehorte eta bero-bolada gehiago egongo dira, uraren lurrunketa-indizea igoko delako.

7) Milioika pertsonaren osasunerako mehatxua

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) aurreikusten du klima-aldaketak 250.000 heriotza gehiago inguru eragingo dituela urtean 2030 eta 2050 bitartean, malnutrizioaren, paludismoaren, beherakoaren eta estres kalorikoaren ondorioz. Azpiegitura txarrenak dituzten eremuek, herrialde pobreetan edo garatzeko bidean daudenetan baitaude, aldaketa horiei aurre egiteko gaitasun murritzenak izango dituzte.



ZER EGIN DEZAKET NIK...?

Denok egin ditzakegu atmosferara isuritako berotegi-efektuko gasen kantitatea murrizten duten jarduera errazak. Gure ekarpena txikia da, baina garrantzitsua.

Garraiorako alternatibak

Automobil partikularra EBko CO_2 isurien % 10en erantzulea da. Oinez ibiltzea, bizikletaz joatea, ibilgailua partekatzea eta garraio publikoa erabiltzea aukera merkeagoak eta osasungarriagoak dira eta adiskide berriak egiteko aukera emango dizute. Ikus "Garraiobideak" fitxa.

- Itzali argiak behar ez direnean. Etxeak EBko elektrizitate-kontsumoaren % 30en erantzuleak dira; beraz, elektrizitatea aurrezten badugu, ondorea nabarmena izango da. Ikus "Etxeko gastu energetikoa".



- Murriztu aparatu elektrikoen erabilera ahal den heinean. Deskonektatu erabiltzen ari ez zaren guztia. Esate baterako, telebista batek kontsumitzen duen energiaren % 45 *standby* moduan egiten du. Europar guztiok modu hori alde batera utziko bagenu, Belgikaren tamainako herrialde batek kontsumitzen duen elektrizitatea aurreztuko genuke.
- Ez utzi mugikorraren kargagailua konektatuta telefonoa kargatzen ari ez zarenean. Hori egiten baduzu, elektrizitatearen % 95 galdu egiten da.



- Urtearen erdian arropa aire zabalean lehortzen baduzue lehorgailua erabili beharrean, urtean 320 kg murriztuko duzue karbono dioxidoaren isuria.
- Ez jarri berogailua oso altu. Tenperatura 1 °C soilik jaisteak familia baten energia-faktura % 7 ere murriztu dezake, eta urtean 900 kg karbono dioxido inguru aurreztu. Tenperatura onena 18 eta 21 °C bitartekoa da.

- Erosi paper birziklatuzko produktuak. Paper birziklatua fabrikatzeak kontsumitzen duen energia % 70-90 gutxiago da eta munduko deforestazioak aurrera egitea galerazten du.
- Saihestu ontziratutako produktuak erostea. Zabor pertsonala % 10 murrizten bada, 540 kg karbono dioxido aurreztu daitezke urtean.



- 1 kg erabilitako aluminiozko lata birziklatzen baduzu, ekoizteko behar den energia 10 aldiz ere murrizten lagunduko duzu.
- Ikus "Elikagaiak alferrik galtzea" fitxa.
- Ikus "Etxeko ur-kontsumoa" fitxa.
- Erosi elikagai freskoak, bertakoak eta sasoikoak. Janari izoztua ekoizteak 10 aldiz energia gehiago kontsumitzen du. Ikus "Kontsumo jasangarria" fitxa.

- Jan haragi gutxiago eta gogoratu animalia-jatorriko proteinen ordez landare-jatorrikoak hartzeko aukera daukazula. Espainiak dieta mediterraneoaren aldeko apustua egingo balu berriro, elikagaien ekoizpenari lotutako berotegi-efektuko gasen isuriak % 70 baino gehiago jaitsiko lirateke. 1 kg txahalki ekoizteko, 27 kg CO_2 isurtzen dira, eta dilisten pisu berbererako, aldiz, 1 kg CO_2 baino ez. Gainera, diferentzia itzela dago ur- eta lur-kontsumoari eta biodibertsitatearen gaineko inpaktuari dagokienez.
- Landatu zuhaitz bat, eremuko ezaugarri ekologikoak eta baimenak kontuan izanik. Zuhaitz bakar batek tona bat karbono dioxido deuseztatzen du bere bizitza osoan.

GEHIAGO JAKITEKO...

- Klima-aldaketa haurrentzat, baliabide eta jarduerak
- OMS. Cambio climático y salud
- ONU para el medio ambiente

- Ecologia Verde. Más información sobre cambio climático
- National Geographic: 100 soluciones prácticas para revertir el cambio climático